

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Zein da zure bezeroa?

Zein dira bezero horien ezaugarriak?

- Gure produktua erosiko duten bezeroak ez dira bezero konkretu batzuk izango, hau da, gure produktua edozeinek erosteko aukera izango du, baina batez ere gomendatzerako orduan, hotz handia pasatzen duten pertsoneri, hau da, hotza gaizki jasaten duten pertsoneri edo mendian egiten diren kirolean aritzen diren kirolariei gomendatuko genieke; adibidez eskiatzera joaten diren pertsoneri, neguan mendira joatea gustatzen zaien pertsoneri edo ibiltzera joatea gustatzen zaien pertsoneri. Bezeroen ezaugarriari hitz egiterako orduan, txamarrak egiterako orduan gure bezeroak dituen ezaugarriak kontuan hartzen ditugu eta, nolabait azaltzeko, pertsonalizatu egiten ditugula esan genezake. Dendetan jartzeaz gain, bezeroek enpresara deitzeko aukera izango dute eta txamarrak nolako ezaugarriak izan beharko dituen aukeratzeko eta gurekin konpartitzeko aukera izango du.